

Pertsona Ignazioren bidean

Heziketa Batzordeak, 2005eko martxoaren 23an.

Zergatik agiri hau?

Agiri hau, Loiola Probitzian, Lagundiaren misioan lankide garen pertsonon heziketan pentsatuz idatzia izan da eta baita gerora etor daitezkeen perfilean ere. Ez dago, gure espiritualtasuna partekatzen dutenei soilik zuzendua, ezta sinestunei soilik ere, nahiz eta hauek beronetan ongi islaturik sentitzea nahi dugun. Agiriak, lortu nahi dugun gizatasun ikusmuga adierazten du, gure erakundeetan gauza garrantzitsua dena, denek baitute berekin Ignazioren espiritualtasunetik darian heziketa helburu sendo bat. Beraz, bada, lantzeko agiria da eta ez irakurketa azkar eta azaleko baterako soilik.

“Jesus Jauna: *gure jokaera* hausnartzen ari naizela, zure jokaera dela aurkitu dut gure jokaerarik egokiena (...) Zeuk esan zenigun: “eredu eman nahi izan dizuet nire antzera joka dezazuen”. Eta, hain izan nahi dut zure antzeko, besteei esan ahal dezaiedan: “izan zaitezte nire antzeko ni Kristoren antzeko izan naizen bezala” (...) Emadazu batez ere Paulok zuen “sensus Christi” hori: neuk ere zure sentimenduez, zure Aita eta gizon-emakumeak maite zenituen zure Bihotzaren sentimenduez, senti dezadan (...)”

Pedro Arrupe

Sarrera

Gizaki jaiotzen gara eta, aldi berean, gizakiago bihurtzen gara gure bizitzan zehar aurre egiten diogun abentura pertsonal nagusienean: abentura saihestezina eta bukatugabea, etorkizun handikoa eta arriskuz betea, lagundua eta bakarkakoa biak batera.

Kristauok uste dugu badagoela pertsona izateko era benetan gizatiar bat: Jesus historikoarena, Kristok historia blaitzen duen eran. Ez da jarraitzeko eredia bakarrik, baita denok harrapatzen gaituen argia ere. Beste era batera esanda: guregan alde gizatiar onena nabarmentzen denean, Jesusen era distiratzten da. Barrenean bulkada bat daramagu –kristauok Jainkoaren Espiritua bezala bataiatzen duguna– gizon eta emakume bezala armonian garatzen laguntzen diguna. Armonia horrek, musika horrek oihartzun berbera du historia guztian zehar eta Jesusengan aurkitzen du bere adierazpide osoa. Horregatik, denok gara gizatiar izaerak betetasun gehiago aurkitzen duen pertsonak aurkitzeko gai, edozein kulturatan.

Loiolako Ignazio, mendeetan zehar beste gizon-emakume asko bezala, Jesus zirikatzen zuen gizatiar-jainkotiar goi-argi berak erakarria eta gidatua izan zen. Eta, bere ibilbide pertsonala, psikologi eta espiritual garapenerako proposamen bihurtzeko zortea izan zuen – dohaina jaso zuen, uste dugu sinestunok–, historian zehar gidari duguna eta Gogo-jardunetan eman ziguna.

Gogo-jardunak bakoitzaren garapen-metodoa ere badira. Ez dute kanpotik eragiten, barrutik baizik. Ez dira jakintza emateko, eraldatzeko baizik eta Jesusen neurrira jartzeko. Bere pertsona eta bere biziera aurkezten digute, ez digute ezartzen. Dohain gisa, grazia bezala ulertu behar dira: bizitzako gauza garrantzitsu guztiak eman egin zaizkigu. Eta onartzen dugun ala ez erantzuteko eskatzen digute.

Gogo-jardunak “lau astetan” daude banatuak eta bizitzako lau une garrantzitsu direla esan dezakegu. Horietako bakoitzak, lehenago edo beranduago, aurre egin beharko diogun gizakiaren alde nabarmenen baten aurrean jartzen gaitu:

1. Lehenak **norbere oinazearen bizipenaren** aurrean jartzen gaitu, **adiskidetzaren grazia** nozitu ahal izateko. Oinaze desberdinak: gure biografian zehar jasan ditugun zauriek utzitakoa –traumak uzten dituen–, gure ingurukoei eragindako sufrimendua –errudun izaera eragiten duena–, norbere ezin eta pobrezia –frustrazioa eragiten duena. Lehen aste honek **errua kristautzeko** aukera eskaintzen digu. Hemendik sortzen den pertsona bere iraganarekin, bere bekatuarekin eta bere mugekin **adiskidetutako pertsona** da, eta beraz, besteekin, Jainkoarekin eta norbere buruarekin adiskidetutakoa. Ez ditu besteak mespretxatzen, eta ez bere buruaz ere lotsatzen. Samurtasunez begiratzen du bai ingurura, bai bere barrura.
2. Bigarrenak **askatasunaren bizipena** aurkezten digu, **norbera ematearen grazia** nozitzen lagunduko diguna. Hainbat jenderen bizitza ez-gizatiar eta bere buruari atsegina ematera tentaturikoaren aurka dagoen askatasuna. Norberaren eta munduaren askatasunaren ikusmugara agertzen gara. Bigarren aste honetako jardunek **askatasuna kristautzeko** aukera eskaintzen digute. Hemendik sortzen den pertsona, **besteentzako pertsona** da, solidarioa, bere inguruan bizi direnentzat benetako grazia bat den pertsona.
3. Hirugarrenak **bestearen oinazearen bizipenera** aurkezten gaitu, **elkartasunaren grazia** norbere egiteko. Bestearen oinazeak, bestearena bezala biziz, ikaratu baino ez du egiten, atzera eragiten du, ez da ikusi nahi izaten. Norberarena bezala biziz hurbildu egiten du, errukia sortzen du, laguntasuna. Aste honetako jardunek **oinazea kristautzeko** aukera ematen digute. Hemendik sortzen den pertsona, **besteekin dagoen pertsona** da, inoiz baztertuta utziko ez duen anaia edo arreba bat, egoten dakien eta egoten uzten duen norbait, elkarrekikotasunaren bertutea lantzen duena.
4. Laugarrenak **alaitasunaren bizipenera** aurkezten gaitu, **eskerronaren grazia** nozitu ahal izateko. Osotasuna, bakea, itxaropena eragiten dituen alaitasuna, euforia edo ongizate hutsa ez dena, baizik eman zaidan, oparitu zaidan guzti-guztiaren aitormena dena. Laugarren aste honetako jardunek **alaitasuna kristautzeko** aukera ematen digute. Hemendik sortzen den pertsona, **eskerroneko pertsona** da, derrigorturik ari ez dena, bere dohain eta adimen guztiak besteen zerbitzuan jartzen dituen.

Lau grazia hauek –adiskidetzea, norbera ematearena, elkartasunarena eta alaitasunarena– ezin dira isolaturik bizi, baizik beren artean zirkulua osatzen da. Laurek elkarri deitzen diote:

- Geu garenarekin adiskideturik sentitzeak eskuzabal, eskerroneko, senide bihurtzen gaitu.
- Besteei norbera doan emateak barrutik baketzen gaitu, senide sentiarazten gaitu.
- Anai-arreba garela jakiteak denekin eskuzabal izatera, eskerroneko izatera eta adiskidetzera garamatza.
- Eskerroneko izateak konprometitzen du gure eskuzabaltasuna, senidetzen gaitu, adiskideturik egoten laguntzen digu.

Laurak dira, *pertsona adiskidetu*, *besteentzako*, *besteekin eta eskerronekoaren* ikusmugara garamatzaten giza hazkunderako sarrerako ateak; honelako pertsona, dagoen lekuan dagoela, beti izango da pertsona maitagarria, benetako albiste ona. Berez, lau oinarrizko ezaugarri horiek maite duen pertsona batenak dira, izan ere maitasuna baita, azken batean, gizakiari sendotasuna eta osotasuna ematen diona.

Bi ohar garrantzitsu

1. Izadiaren azken ikusmuga honetaraxe nola **sinestunak** ala **sinesgabeak** gaude deituak. Ez da soilik lehenengoan egitekoa, eta ez dute hauek bigarrenengoak baino hobeto lortzen ere.

Batzuek eta besteek elkarri laguntzen diogu bertan. Sinestunak duen desberdintasuna, Jainkoarekin elkarriketan egiten duela eta graziaren bidez, dohainaren eta erantzunaren bidez esperimintatzen eta adierazten duela da. Sinesgabeak giza garapen eta osotasun hitzen bidez adierazten du. Alabaina, bakoitzaren esateko modu desberdinek bereizten badituzte ere, itxaropena eta maitasun bidean bizi diren sinesgabeak, sinestunengandik oso hurbil senti daitezke, eta alderantziz.

Ondorengo lau ataletan pertsonaren berezitasun desberdinak agertzen dira. Azkena bakarrik adierazi dugu sinestun ikuspegitik, bizipen espiritualari eskaini baitiogu. Lehen hirurak, ikuspegi horretatik egin zitezkeen arren, ez ditugu horrela hartu. Era honetan, testu hauetan, ez dugu nahi izan sinestunak bakarrik interpelaturik senti daitezen, ahal den pertsona kopururik handiena baizik.

2. Giza hazkunde hau ez da inoiz amaitzen. Aipatu berri ditugun bizipen desberdinetan bukaerarik gabeko sakontze **prozesua** da. Pertsonak beroietan barneratzen jarraitzen duen neurrian bakarrik mantentzen dira bizi eta fresko. Horregatik hitz egiten dugu bidez, eta beraz, dinamismoaz eta etengabeko mugimenduz.

Ignazioren bidean aurrera egiten duen pertsonaren ezaugarriak

Atal honetan, Ignazioren bidean aurrera egiten duen pertsonaren ezaugarri sorta bat jaso dugu. Ez ditugu denak aipatu nahi izan, garrantzitsuenetakoak baizik, bakoitzaren hazkundean orientabide gerta daitezzen.

Ezaugarri hauek lau ataletan sailkatu ditugu:

1. **Nortasuna:** atal honetan aurkituko ditugu *pertsona adiskidetu* gisa haztearekin zerikusi gehiago duten ezaugarriak.
2. **Solidaritatea:** hemen aurkituko ditugun ezaugarriak, batez ere, *besteentzako pertsonak* izan atalari dagozkionak dira.
3. **Partaide sentitzea:** batez ere, *besteekin batera pertsona* izateari lotua.
4. **Bizipen espiritualak:** fedea pertsona sinestunaren alde guztiak biltzen ditu, bere heldutasunean espiritual alderdia gizatiar izaeratik ezin berezi izateraino. Eta bestalde, bizipen espiritualean, bada agian, bizi-esperientzia oinarritzeko bat: dena oparitu izan zaigun esperientzia eta bizitza-opari horri erantzutera gonbidaturik gaudena. Azken batean, eskerrak emateko esperientzia da. Bizipen espiritualak *eskerroneko pertsonak* izatera deitzen gaitu.

Berrito esango dugu lau alor hauek elkar aberasten dutela. Zentzu horretan, ez dira esparru itxiak, elkarrekin harremana duten alorrak baizik eta pedagogikoki argigarriago zaizkigun neurrian bakarrik bereizten ditugunak.

1. Nortasuna

Atal honetan bakoitzaren nortasunaren lanarekin zer ikusia duten ezaugarriak jaso ditugu, eta geure historiarekin adiskidetzeari bereziki heltzeko aukera ematen digu, pertsona adiskidetu gisa bizitzen laguntzen digu.

“Bada, bakoitzak pentsatu behar du bere gogo, nahi eta ekoitzitik ateratzen den adina aurreratuko dela espirituko gauza guztietan”.

Loiolako Ignazio, Gogo-jardunak, 189. zenb.

a. Norbere buruaren ezagutza eta onarpena:

- Norbere dohainak eta nortasuna berez direnetik estimatzen ditu eta ez alderatuz. Bere buruaren ikuspegi baikorra du: badaki pertsona baliotsua eta maitatua dela. Ez ditu beste izaera edo gaitasun batzuk etsipenez gogoratzen. Begiratu lasaiaz eta umore zentzuz dabil bere izaerari dagokionez.
- Norbere kontzientzia lantzen du eta bere baliabide, ahulune eta pertsona bezala dituen hutsuneak ezagutu eta onartzeko konpromisoa bere egiten du, bere gaitasunen garapena mugatzen baitiote, eta era berean baita bere barne-ikara, bulkada nahiz lotura ez osasungarriak ere (estatusa, jabegoak, aurre-juzguak), bere erabaki eta jarduerak baldintzatzeko arriskua dagoelako.

b. Bizitzaren zentzua:

- Norbere historia eta biografiaren gertakarien haritik pertsona bere nortasuna erabakitzen joaten da, besteekin eta errealitatekin elkarriketan: zer naiz, zer nahi dut, zein dira bizitza honetako nire xedeak, nola biziko naiz eta nola jokatu dut. Era honetan bere ikuspegia eratzen du, bere buruarekin koherentziaz eta defendatzen dituen balioen bidetik.

c. Gizartekoitasuna (harreman eta komunikazio gaitasuna):

- Beste pertsonekin, lehen uneko konfiantza girotik abiatuz, ongi komunikatzen da. Elkarriketarako eta entzuteko gai da besteen iritzia eta bizi-jarrera enpatiaz jasoz. Malgua eta apala da, bere iritzia ez ditu absolutu bihurtzen, besteen aholkuak onartzen ditu. Sentikorra da, besteen sufrimendua sumatu eta bere egiteko. Aurre-juzgurik gabe kultura desberdinetara irekia dago.

d. Heziketa:

- Etengabe eguneratu nahi du bere misioan sortzen diren arazoei zuzen erantzuteko. Bere misio-jardunean jabeturik dago, jakintza ez dela boterea, Erreinua zerbitzatzea baizik.

e. Erabakimen gaitasuna:

- Sakrifizio bidetik askatasuna-erantzukizuna bikotea egoki uztartzeko gai da. Ez mendeko, ezta mendeko-aurkako ere. Utopiaren alde borrokatzera eramaten duen bere izaera konformagaitz jatorrean islatzen den barruko kemen, ilusio eta indarrez.

2. Solidaritatea

Atal honetan, solidaritatea lantzen, besteentzako pertsona izaten lagun diezaguketen ezaugarriak jaso ditugu.

“Izan ere, behartsuak, Jainkoaren aurrean hain handi direnez, beraiengatik bereziki izan zen Kristo mundura bidalia... eta hainbestearaino izan zituenez aberatsak baino nahiago, Jesukristok bere apostolu guztiak behartsuen artetik hautatu zituen...Behartsuak izango dira bere aholkulari. Behartsuen lagun izateak betiko Erregearen lagun egiten gaitu”.

Loiolako Ignazio, Paduako aita eta anaiei gutuna, 1547.

a. Kreatioarekiko errespetuzko jarrera:

- Errealitatearekin errespetuzko harremanean, eta pertsonekin batez ere, bai baitaki pertsona bakoitzak bere misterioa bizi duela.
- Bizitzeko era xumea mantentzen du, ez kontsumista, kreatioarekin arretazko jarreran bizitzen lagunduz...

b. Sentiberatasun sozial hausnartua eta kritikoa:

- Errealitate sozialari adi dago eta bidezko ekintzek hunkitzen dute, beroietarako zerbitzuko jarrera eskainiz.
- Kultura modernoa, bere balioak eta balio-aurkakoak kritikoki bereizteko (diszernitzeko) gai da: kultura aldaketetan positiboki hartzen du parte, moda iragankorren mende egon gabe eta hausnarketa jarrera eta profetikoa galdu gabe. Ondorengoekin adi egonez: 1) eraginkortasuna eta ekoizpena neurritz kanpo baloratzeaz eta 2) indibidualismoaz.
- Beste batzuekin batera errealitatearen irakurketa kritikoa egiten du. Zalantzan jartzen ditu *status quo*a, bakoitzaren portaerak, egiten den lana, bizi den kultura.

c. Errealitatearekin inplikazioa:

- Adiskidetasun harremanak ditu –edo izan nahi lituzke gutxienez– baztertutako pertsonekin, beste era batera ulertzen eta munduari buruzko begirada ongi bideratzen laguntzen baitiote.
- Giza arazo eta injustiziez erantzukizuna hartzen du. Pertsona eta gertakariei sutsu erantzuten die.
- Munduan inplikatzeko da, eta baita gure herriko errealitatean ere, bertatik baztertu ordez.

d. Munduarekin elkarrizketa:

- Gai da munduarekin elkarrizketatzeko ondoko oinarrietan: a) *bizitza partekatu*, “irekitasun espirituz”, b) *ekintza konpromisoa partekatu* askapenaren alde eta c) *balioak* eta giza esperientziak *partekatu*.

e. Bakoitzaren eskaintza osoa, murrizketarik gabe:

- Besteentzako hobia denaren bilaketak zirikatzen du. Ez da erdibideko konponketez konformatzen. Ignaziok Erreinurako “*magis*”a deitu zuenaren atzetik dabil.
- Beren giza eskubideak zapalduz dituzten pertsonak sutsuki defenditzen ditu.

3. Partaide sentitzea:

Atal honetan senidetasun eta kidesun sentimenduarekin zerikusia duten ezaugarriak jasotzen ditugu, pertsona bezala besteekin bizitzen laguntzen baitigu.

“Besteekin parte hartu eta elkarlanean aritzea ez da estrategia hutsa..., gure gaurko jokaeraren oinarritzko neurria baizik. Gure mundu konplexu eta zatitua Erreinuaren etorrerarako prestatzeak, nola nazioarteko hala kultura anitzetako dohainen, ikuspegiaren eta esperientzien pluraltasuna eskatzen duela jabetzea da bere oinarria”.

34. Kongregazio Orokorra, 26. d., 16. zenb.

a. Besteak kontuan hartuz bizitzea:

- Bere interesetik haratago doa. Zerbitzatzen dituen haiek animatzen ditu euren helburu, ongizate edo behar pertsonalez arduratuz.
- Leialtasun, maitasun eta laguntasun giroak sortzeko gai da. Besteekin konprometitzen da jarrera positibo, maitekor eta sutsu baten bidez.

b. Erakunde mailako konpromisoak onartzea:

- Interes-gatazka garaietan pertsona eta erakundeekin leiala da.
- Ezagutu eta onartzen ditu elkarrekin lan egitearen balio, helburu eta moduak, eta baita oinarri eta balio partekatuak ere.
- Jaso duen misioa gogotsu lantzen du eta baita irrikaz ere. Eskuarlean dituen lanetan, zaletasunez eta uste sendoz gehiagotan aritzen da betebeharez baino.

c. Talde-lana:

- Protagonismo asmorik gabe, proposatzen du baina ez ezartzen, besteen iritzia entzun eta onartzen du hobe dela iruditzen zaionean.
- Buruzagitzak onartzen ditu bere ondorioekin.
- Behar denean, badaki besteak baino lan gehiago egiten, eta bere garaian, atsedena ematen eta baita atsedena hartzen ere.
- Denen arteko lorpenekin eta besteekin gozatzen du. Garaipenak ospatzen ditu eta denen porrotak laguntzen.

d. Lagundiarekin identifikazioa eta konpromisoa:

- Berak lan egiten duen jesuiten erakundearen Lagundiaren misio zehatzarekin identifikatzen da: Fedea-Justizia gure kulturaren eta besteekin elkarrizketan.
- Maitasuna hartzen du ignaziotar familiaren lokarri.
- Lagundiarekin gehiago uztartu nahi du.

4. Bizipen espiritualak

Atal hau sinestunentzat gehiago da, existentziaren misterioaren neurria, biziaren Jainkoan itxaropen gisa, maitasun gisa ulertzen baitugu. Ignazioaren bidean bizipen espiritualak Jainkoaren dohaina jasotzen den lekua da –bere maitasuna, bere presentzia, mundua eta nire pertsonari buruzko bere asmoak– eta eskerronez itzultzen da dena. Hortik sortzen dira fedea opari gisa bizi duten pertsona haiek eta bizi-iturri gisa, alaitasunez bizitzera daramatzenak...

“Tori, Jauna, eta har ene askatasun osoa, ene oroimena, adimena eta ene nahimen osoa, dudak eta daukadan guztia; zuk eman zenidan; zuri itzultzen dizut, Jauna; dena zurea da; erabilzu nahi duzun bezala; emadazu zeure maitasuna eta grazia, eta hori nahikoa dut”.

Loiolako Ignazio, Gogo-jardunak, 234. zenb.

a. Fedearen eta erlijio sentikortasunaren oinarria:

- Sinestuna da, bizitzaren transzendentziara zabalik dago eta berorren lekukotza ematen du maila pertsonalean, familian, lanean...
- Elizako partaide sentitzen da eta, bereziki, norbere herriko elizako partaide. Saiatzen da bertan gaurko baldintzen, kulturen eta mintzairaren arabera heldu bezala bizitzen¹.
- Bizitzako gertakarien esanahietan sakontzeko eta fedearen ikuspegitik ulertzeko gaitasunez.
- Otoitz esperientziarekin.
- Ignazioaren azterketaren praktikak laguntzen dio bere bizitzan, Jainkoarekin topo egiteko esperientzia bizitzen.

b. Eguneratutako erlijio heziketa:

- Fedean bere hazkuntza pertsonala zaintzen du eta fede hori fede heldua izan dadin behar dituen ezaupidez hornitzen.
- Gogo-jardunak egin ditu eta errepikatu nahi lituzke.

c. Heldutasun espiritualak eta erlijiosoa (gizatiarrari loturik doana):

- Jesusekin pertsonalki identifikatua dago. Bere itxaropen pertsonalek Jainkoaren Erreinuarenarekin bat egiten dute.
- Bereizkuntzarako (diszernimendurako) eta norbere burua ukatzeko gaitasuna.
- Bere bokazio aukeraren zati bezala aitortzen du misioa.
- Laguntzen uzten du.
- Bere fede bizitza beste gizon-emakumeekin partekatzen du.
- Jainkoa pertsona bakoitzean ikusten du. Talentua, ahalmena eta duintasuna pertsona bakoitzari ikusten dizkio, arraza, historia, azentua, kultura edo heziketan erreparatu gabe.

¹ 34. Kongregazio Orokorra, 11. d., 19. zenb.

Ondorioa

Ibilbide luzea egin dugu Ignazioren bidean aurrera egiten duen pertsonak erakusten dituen ezaugarrietan zehar. Gizatasunez goratutako ikusmuga bat adierazi dugu. Gure errealitatea, oster, eskasagoa izan ohi da, apalagoa. Garrantzitsuena ez da ikusmuga hori lortzea, hazteko tentsioa, prozesu jarrera mantentzea baizik. Benetan, esperientziaz dakigu ikasle eta ibiltari espirituak soilago eta hurbilago egiten gaituela; senidetasuna eragiteko, maitasuna esnatzeko eta emateko gaituago. Jarrera horrek harremanak hausten dituen harrokeria eragozten du. Sarritan bezala, helmugako geltokiak norabide bat adierazten du, baina ez da hori garrantzitsuena. Egiaz, norberak bidean jarri behar du arreta.

Bide hau maitasunez egina dago, hau da, norbere burua, buruzaletasuna, bakoitzaren nahi eta interesak² ahaztuz eta, era honetan, besteen onginahia bilatuz, anai-arrebengandik hurbil egonez haien premietan, zerbitzua eta maitasuna eskainiz. Agiri honek, agian, zaindu beharreko alde asko dauden, gehiegi behar bada, irudia eman dezake. Benetan, gauza bakarra da garrantzitsua: maitatu eta norbera maitatzen utzi.

Arrazoi horrengatik, Ignazioren bidean aurrera egiten duen pertsonaren ikuspegi sintetiko bat badago: besteekin batera bila dabilena eta bizi duenetik ikasten duena, dena Jainkoaren dohain gisa hartzen duena, alaia, neurritz kanpo maitatua dela jabeturik besteentzat bizi dena, zintzoa, gezurrik gabea, hitzekoa, bere historia maitasunez begiratzen duena, adiskidetasunerako eta konfiantzarako gai dena, sufritzen dutenengandik hurbila, historia eta justiziarekin konprometitua...

Hain kristaua, hain ignaziotarra, hain unibertsala den ikusmuga gizatiar honetara gaude deituak. Espero dugu horri hauek, soiltasunez eta konfiantzaz, bertara joaten lagunduko digutela.

² Gogo-jardunak 189. zenb.